



## ERRESONANTZIA MAGNETIKORAKO BAIMENA

Erresonantzia magnetikoa X izpiak erabiltzen ez dituen miaketa teknika bat da. Ez du beste elementu erradioaktiborik erabiltzen eta ez du ondorio kaltegarriarik. HAUEK KONTUAN IZAN BEHAR DIRA:

Miaketa behar bezala egin ahal izateko, garrantzitsua da gaixoa geldirik egotea proba osoan, **MUGITU GABE**.

- Gaixoak zarata erritmiko bat entzungo du, kolpe errepikatuak balira bezala. Hori OHIKOA da teknika honetan. Zarata horren maiztasuna eta intentsitatea aldakorrak dira, eta horixe izango da sentituko duen enbarazu bakarra.
- Logelak itxita egon behar du. Osasun-langileek IRUDI BIDEZ kontrolatuko zaituzte uneoro, eta haiekin HITZ EGIN ahal izango duzu, miaketa egiten duten bitartean.

ERRESONANTZIA MAGNETIKOAK EREMU MAGNETIKO BATEKIN EGITEN DU LAN. HORI DELA ETA:

- Bihotzeko **TAUPADA-MARKAGAILUA** duten pertsonak **EZIN DUTE SARTU**.
- Metalezko objektu guztiak KENDU BEHARKO DITUZU. Zalantzarik izanez gero, galdetu langileei:

|               |           |          |                   |
|---------------|-----------|----------|-------------------|
| Belarritakoak | Eraztunak | Lepokoak | Kreditu-txartelak |
| Urkilak       | Giltzak   | Etab.    |                   |

- Garezurra miatzean, begietako makillajea kendu beharko duzu.
- Gorputzean eta, batez ere, begietan, metalezko TXIRBILAK egon daitezkeela jakinarazi beharko diozu langileei, bai eta gorputzaren barruan edozein METALEZKO ELEMENTU daukazula ere (metraila, klip kirurgikoak, protesiak eta abar).

## DATUEN BABESA

*Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko 15/1999 Legean ezarritakoaren arabera, jakinarazi didate nire datu pertsonalak RESONANCIA MAGNÉTICA BILBAO, S.A. titular eta arduradun duen fitxategi batean bilduko direla.*

*Nire berariazko baimena ematen dut, nire osasunari buruzko datuak tratatzeko eta miaketako irudiak hartzeko, gaixoa naizen aldetik, erresonantzia magnetikoko zerbitzu medikoak kudeatzeko eta garatzeko, eta ahalik eta laguntzarik onena jasotzeko.*

*Era berean, dagokion aseguru-konpainiari txosten medikoaren kopia bidaltzeko baimena ematen dut, zerbitzu medikoak eskatuta.*

*RESONANCIA MAGNÉTICA BILBAO, S. A.k bermatzen du bere fitxategi informatikoetan eta paperean jasota dauden gaixoen datu pertsonalek erabateko konfidentzialtasuna izango dutela, eta datu horien erabilera izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko araudian zehaztutako ildoetara egokituko dela beti.*

*Nik nahi dudanean, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, aurkaratzeko eta/edo ezerezteko eskubideak egikaritu ahal izango ditut, izaera pertsonaleko datuei buruzko legedian ezarritakoaren arabera. Hori egiteko, formalki eskatu beharko dut idazkaritzan edo idatzi bat bidali beharko dut RESONANCIA MAGNÉTICA BILBAO, S.A., Licenciado Pozas kalea 10 etxabea, 48011 Bilbo (Bizkaia) helbidera.*

## ERRESONANTZIA MAGNETIKOKO MIAKETA EGITEKO AURRETIKO GALDEKETA

### Adierazi erantzun zuzena zirkulu baten bidez

Adibidez: Gurekin erresonantzia magnetiko bat egiteko hitzordua al du .....BAI EZ

1. Egin al duzu inoiz erresonantzia magnetikorik? .....BAI EZ

Erantzuna baiezkoa bada, adierazi zer osasun-zentrotan egin zizuten.....

2. Inoiz egin al dizute ebakuntzaren bat? .....BAI EZ

Erantzuna baiezkoa bada, zehaztu zer ebakuntza mota izan zen eta noiz egin zizuten (gutxi gorabehera)

3. Zerrenda honetan aipatutako gailuren bat al duzu?

Taupada-markagailua .....BAI EZ

Garezurreko klipak.....BAI EZ

Artikulazioetako protesia.....BAI EZ

Belarriko protesia.....BAI EZ

Intsulina-ponpa.....BAI EZ

Txirbilak begietan .....BAI EZ

Metalezko plakak edo iltzeak .....BAI EZ

Hodietako protesia .....BAI EZ

Bihotzeko balbulak .....BAI EZ

Hortzetako protesia.....BAI EZ

Entzumen-protesia (gorren entzungailua) .....BAI EZ

Tatuajeak begien inguruan .....BAI EZ

BESTE BATZUK.....BAI EZ

4. Giltzurrunetako gutxiegitasuna al duzu?.....BAI EZ

5. HAURDUN zaude ala BULARRA EMATEN ari zara? .....BAI EZ

6. Batzuetan, KONTRASTE bat injektatu behar da zain barnetik, diagnostikoa errazago egiteko. Kontraste mota hau beste erradiologia-proba batzuetan erabilitakoaren desberdina da eta segurtasun handiagoa du. Hala ere, sendagai guztietan bezala, erreakzio alergikoa eragiteko arriskua du. **Proba egin bitartean, erradiologiak kontraste hori ematea egokitzat joko balu, zure baimena emango zenuke?**.....BAI EZ

7. Jasotako informazioa irakurri eta sor daitezkeen zalantzak argitu ondoren, proba egiteko baimena ematen duzu? .....BAI EZ

8. Adina .....

IZENA:

NAN-zenbakia:

PISUA:

-(e)n, 20

-(e)ko

-ren

-(e)an

Gaixoaren edo pertsona arduradunaren sinadura

LEGEZKO OHARRA: Dokumentu honek informazio konfidentziala eta/edo pribilegiatua jaso dezake, eta hartzaileari berariaz zuzenduta dago. Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak babesten du dokumentu honek datu pertsonalekin lotuta jaso dezakeen informazioa. Lege horren arabera, hau agintzen du; ezin ditu datu horiek hedatuko bitarteko bakar baten bidez, ez eta argitaratu ere, ez beste modu batera ere, zuzenean, hirugarrenen pertsonen edo enpresen bidez, eskuragarri ditudan datuak ez ditut erabiliko hitzartutakoa ez den beste xede baterako, ez diet erabilera bidegabeari edo lege kontrakoari emango nire onerako, eta ez ditut jakinaraziko, lagako edo hirugarrenen eskura jarriko, ez diet beste pertsona fisiko edo juridiko batzuei emango zain ditzaten. Ez bazara dokumentu honen hartzailea (edo hutsegitez hau ikusteko aukera izan baduzu), berehala igorleari jakinarazi behar diozu eta dokumentua suntsitu behar duzu. Indarreko legediak zorrozki debekatzen du dokumentu honen kopiak egitea, erakustea edo banatzea.